



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abenduaren 2a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari José Luis Uriz Iglesias, Isabel Arboniés Bermejo, José Andrés Burguete Torres eta Begoña Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztua. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza jaunak aurkeztua. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Osoko Bilkurak erretiratua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak erretiratua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Amnesty Internationalek Errusiako lehendakari Putin jaunari egin dizkion eskariak, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarrizko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela, Osasun Batzordeak bazter utzia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, generoko indarkeriaren aurkakoa. Osoko Bilkurak berretsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin (11. or.).

—Galdera, aurrekontuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gizarte Kontseilu Ekonomikoan tramitatze-ari buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtua (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako

Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko

26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza eta Kultura Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko abenduaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari José Luis Uriz Iglesias,

Isabel Arboniés Bermejo, José Andrés Burguete Torres eta Begoña Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztu eta 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari José Luis Uriz Iglesias, Isabel Arboniés Bermejo, José Andrés Burguete Torres eta Begoña Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztu eta 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Gaietako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko abenduaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Joxe Fernando Barrena Arza aurkeztutako Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ERRETIRATUA

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko azaroaren 21ean egindako bileran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena erretiratu duela jakitun

dagoela adierazi zuen. Foru Lege proposamen hori 2002ko urriaren 28ko 100. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ERRETIRATUA

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko azaroaren 21ean egindako bileran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena erretiratu duela jakitun dagoela adierazi zuen.

Foru Lege proposamen hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak barne merkataritzaren arloko eskumen osoa du.

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Legea onetsi zuen. Foru lege hartan ezarri zen legeak indarra izanen zuela salerosketaren arloan eta lurraldearen antolamenduaren arloan behin betiko ebazpena eman ez zaien saltoki handiei buruzko baimen espedienteetan.

Legeak lurralde ereduaren figura sortu zuen legearen printzipio inspiratzaileak –txikizkako mer-

kataritzak ohiko egiturari eustea, merkataritza jardueren hazkundera harmoniatsua eta orekatua izatea, plusbalioen banaketa zuzenagoa izatea eta gizarte eragileen parte-hartzea egiazkoa izatea– edukiz hornitzeko.

Lurralde eredu loteslea izanen da; horrela, baimenak lortzeko prozedurak arautu eginen dira, eta aldi berean, inplikaturako administrazioen erabakiak irizpide objektiboekin definituko dira.

Legegileek lurralde ereduaren garapenari eman zioten garrantzia bosgarren xedapen gehigarriari jasotzen da, hilabeteko epea ezartzen baita Gobernuak lurralde ereduaren arloan legea garatzeko erregelamendua onetsi dezan.

Lurralde eredu munta handiko afera izan arren, Gobernua agindu hori saihesten ari da, eta, Nafarroako Merkatarien Federazioak agerian utzi duenez, gaur egungo zehaztugabetasun juridikoa baliatu nahi du sektorean tentsio larria eragiteko, Nafarroan merkataritzaren banaketan desoreka larria eragin dezakeena.

Aldaketa honen bidez ekidin egin nahi da zehaztugabetasun juridiko hori, ekidin daitekeen modu bakarrean ekidin ere, alegia Biltzarreko talde gehienen jarrerari erantzunez.

Hori guztia dela eta, Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 11ko 17/2000 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamen hau aurkeztu dugu, Parlamentuaren Osoko Bilkurak onetsi dezan.

TESTUA:

Foru lege honen bidez xedapen gehigarri bat gehituko zaio Nafarroako merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 11ko 17/2001 Foru Legeari.

Artikulu bakarra.

Seigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak sei hilabeteko moratoria ezarriko du saltoki handiak baimendu eta horietarako lizentziak ematerakoan, epe horretan Nafarroak indarrean izan beharko baitu saltoki handien lurralde eredu.

Legea indarrean sartzean behin betiko ebatzi gabe dauden espediente guztiei aplikatuko zaie moratoria hori.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Amnesty Internationalek Errusiako lehendakari Putin jaunari egin dizkion eskariak

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatiera andreak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Amnesty Internationalek Errusiako lehendakari Putin jaunari egin dizkion eskariak”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

“Justizia guztientzat Errusiako Federazioan” kanpainaren barruan, Amnesty Internationalek aurreikusia dauka milaka sinadura ematea herrialde hartako lehendakariari, Putin jaunari, ondoren azaltzen diren gogoeta eta eskariekin batera.

Errusiako Federazioan giza eskubideak sistematikoki bortxatzen jarraitzen da, eta biktimek halako bortxaketen egileak prozesatzeko aukera gutxi daukate. Tortura eta tratu txarrak ia errutina bihurtu dira polizia-komisarietan, eta herrialde hartako prebentziozko atxiloteten zentroetan oro har dauden baldintzak –gaixotasunen areagotzea eta

preso-pilaketa bidegabea– hain dira izugarriak ezen esan beharra baitago tratu anker, bihotzgabe edo laidogarria dela. Txostenen arabera, Txetxeniarren gatazkak iraun zuen bitartean, indar errusiarrek zibilen aurkako erasoak egin dituzte, eta “desagertzeak”, epaiketarik gabeko exekuzioak, bortxaketak eta bestelako tortura egintzak gertatu dira; hori guztia inongo zigorrik jasotzeko beldurrik gabe.

Giza eskubideen aurkako abusuengatik konputak eman behar izatea eta abusu horiek jasan dituzten biktimek justizia oraindik ere ez dira gauzatu Errusiako Federazioan. Estatuak gutxitan eman behar izaten du abusu horientatik konputak, eta biktimek ordaina jasotzeko bideak ez dira eragingarriak. Partikularrek ez dute sinesten Estatuak edo erakunde judizialek bidegabekeriak konponduko dituztenik, eta giza eskubideak urratzen dituztenek ongi dakite zigorrik gabe ateratzeko aukera guztiak berekin dituztela. Egoera larri horren aurrean, Amnesty International erakunde mundu osoan kanpaina bat egiten ari da Errusian giza eskubideen aurkako abusuak egiten dituztenak bizi diren zigorgabetasun egoera horrekin amaitzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu ditugu:

1go. Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Amnesty International erakundeak Errusiako lehendakari Putin jaunari eginiko eskariak, hots:

1. Konpromiso politiko argia erakuts dezala pertsona guztien oinarritzko giza eskubideak babesteko, eta argi eta garbi azal dezala eskubide horien bortxaketak ez direla onartuko.

2. Berma dezala berehala ikerketa inpartzial, independente eta exhaustiboak egiten direla giza eskubideen aurkako abusuengatik salaketei

buruz, eta erantzuleak giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen arabera epaituko direla.

3. Gutxiengo etnikoak atxiloketa arbitrarioetatik babes ditzala, batez ere egoitza-baimenak (*propiska*) eskatzeko kontroletan, eta polizia aplikaturiko tortura eta tratu txarretatik. Hartu beharreko neurrien artean, halako abusuetan inplikaturiko funtzionarioak prozesatu beharra dago, bai eta polizia arrazakeriaz eta bazterkeriaz ez duela jokatu bermatuko duten prestakuntza eta gain-begiraketa programak sortzea ere.

4. Egungo praktikak alda ditzala, haurrak azken erremedio moduan baizik ez atxilotzeko, eta zaintzapeko adingabeen eskubide eta beharri-zan bereziei buruzko legea betearazteaz ardurazten diren funtzionarioak prestatzeko programak

sar ditzala, Haurraren Eskubideei buruzko NBE-ren Konbentzioak eskatu bezala.

5. Etxeko indarkeria delitu tipifikatu bihur dezala, eta legea betearazteko ardura duten funtzionarioak prestatzeko programak egin ditzala, hain zuzen ere emakumeen aurkako indarkeria ekin-tzak ezagutu eta jazar ditzaten, horien artean etxeko indarkeria eta emakumeen trafikoa. Legeak alda ditzala, halaber, medikuntzaren arloko langile guztien txosten medikoak frogatu moduan onar daitezkeen tratu txarrei buruzko salaketan kasuetan, bortxaketa salaketetan eta bestelako torturetan.

2gn. Erabaki hau Amnesty International erakundeari igortzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarrizko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan oinarrizko osasun laguntzako zentroetan laguntza pediatrikoa pediatriako sendagile espezialistek ematen dutela".

Biltzarreko Osasun Batzordeak, 2002ko azaroaren 22an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Adierazpen instituzionala, generoko indarkeriaren aurkakoa

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2002ko azaroaren 21ean egindako bileran, Eledunen Batzarrak 2002ko azaroaren 4an egindako bilkuran onetsi zuen adierazpen instituzionala, generoko indarkeriaren aurkakoa, berrestea erabaki zuen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Adierazpen instituzionala, generoko indarkeriaren aurkakoa

“1go. Nafarroako Parlamentuak bere gain hartzen du emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzen laguntzeko eta indarkeriazko jarrerak

errefusatzeko behar diren neurri guztiak errazteko konpromisoa.

2gn. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentu honek 2002ko ekainaren 17an eginiko bilkuran indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruz onetsitako Foru Legearen edukia berehala aplikatu eta jendaurrera dezan.

3gn. Nafarroako Parlamentuak presaz tramitatu eta eztabaidatuko ditu Parlamentuko taldeek foru lege horretan egin nahi dituzten aldaketak, aldaketa horiek 2003. urterako aurrekontuetan kontuan hartu ahal izateko.”

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruzkoa*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Iruñerriko hotel batean sarrio bat agertu izanari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuna izateko.

Orain dela gutxi, bertako komunikabide batek Iruñerriko hotel batean sarrio bat harrapatu izanari

buruzko informazioa zabaldu zuen. Albistearen arabera, Foruzaingoaren Ekologia Atalak hura hartu eta ordu batzuetara sakrifikatu behar izan zuela, "ez baitzegoen aukerarik hura berriz bere natur ingurunean jartzeko, eta animaliak sufritu egin behar zuelako. Ezin zen besterik egin". Kontuan harturik sarrioa espezie babestua dela, ondo-koak jakin nahi ditugu:

1. Ikertu al da aipatu sarrioa nondik nora agertu zen Iruñerriko ingurune ia urbano batean?

2. Zein izan ziren animalia sakrifikatzekeko arrazoiak, kontuan hartuta espezie babestua dela, balio genetiko handiko animalia izan daitekeela eta gatibu eduki zitekeela orain arte espezie horri buruz ezagutzen ez diren datu eta ezaugarriak ikertzeko?

3. Nork erabaki zuen animalia sakrifikatzea, harrapatu eta ordu gutxiren buruan? Egoki baloratu al zen animalia sakrifikatzekeo beharra?

Iruñean, 2002ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, aurrekontuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gizarte Kontseilu Ekonomikoan tramitatzeari buruzkoa

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Aurrekontuei buruzko Foru Legearen aurreproiektua Gizarte Kontseilu Ekonomikoan tramitatzeari buruz egindako galdera idatziz erantzuteko galdera bezala izapidatuko dela jakitun dagoela adieraztea. Galdera foru parlamentari Félix Puyo

Rebollo jaunak aurkeztu eta 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	---